

Maritxu Etxeberria Irastorza
Ordizia, Gipuzkoa (1923-2011)

Aurkibidea

Biografia

Urdaneta kalean jaio zen. Lehenengo eskola nazionaletan ikasi zuen, eta azken urtea jometan. Ama Zaldibiakoa zuen eta aita Lazkaomendikoa. Jostuna.

Zintak

ORD-006

- **Proiektua:** Ordiziako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Data:** 2004-02-06
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Emalea:** Ordiziako Udala

Pasarteak

1. Ordizian jaio zen 1923an

- **Erref:** ORD-006/002
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:02:33

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1923ko ilbeltzaren 17an jaio zen Ordizian. Ama Zaldibiakoa eta aita Lazkaomendikoa zituen. Senarro Idiazabalgoa eta 6 seme-alaben ama da.

2. Azokan arropa saltzen

- **Erref:** ORD-006/003
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:33. **Bukatu:** 00:04:47

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Umetatik josten aritu izan da. Ordiziako azokan postua zuen eta arropa saltzen zuen bertan. Garai hartan arropa dena jositakoa izaten zen. Maritxuk etxean josten zuen, ama ere jostuna zuen. Josten irakasten aritu zen etxean.

3. Bizimodua ateratzeko josten hasi zen

- **Erref:** ORD-006/004
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:04:47. **Bukatu:** 00:05:55

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Aita hil zitzaionean bizimodua ateratzeko plazako postuan saltzaile gisa hasi zen.

4. Eskolan eta lagunekin gaztelaniaz

- **Erref:** ORD-006/005
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:06:41

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskola Nazionaletara joan zen eta azken urteetan mojetara. Gaztelaniaz egiten zuten eskolan eta kalean lagunekin.

5. Hernaniko azokara trenez arropa saltzera

- **Erref:** ORD-006/006
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:06:41. **Bukatu:** 00:10:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Hernaniko azokara arropa saltzera joaten zen trenez. Ordiziako azoka oso ezaguna zen, ganadu ugari izaten zen bertan. Emakumeek goizez soilik zuten libertatea azokan ibiltzeko. Inguruko herrietako saltzaile ugari izaten zen; astoarekin joaten ziren.</p>

6. Azokan neurriak hartu eta arropak jositakoan etxera bila

- **Erref:** ORD-006/007
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:10:58

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Marixuri etxera joaten zitzaizkion azokan neurriak hartu eta arropak jositakoan etxera bila jizkioten arropak jasotzera.

7. Oilaskoa, otordu berezietarako

- **Erref:** ORD-006/009
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:12:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Eguneroko otorduetan salda edo zopa eta babarrunak eta haragia tomatearekin jaten zuten gehienbat. Oilaskoa urtean behin jaten zuten egun bereziren batean.

Transkripzioa

- Gero jana ta hola nola izaten zan ordun? Oain baiño bariedade gutxigo izango zan ordun?

- Baai, bai, bai, bai. Bai, ba, ta nire gazte-denboran hor, klaro, bakizu zer pasatu zan hor? Urte kuarenta, ta kuarentaiuno, ta kuarentaidos txarrak izan zien, eta ordun gaizki ibili giñen janakin. Baiño gaiñetikan hemengo jana, eguardikoa, jeneralmente nere etxen, egunero, estraiñeko salda garbie, zopa, gure amak eitten zun. Eta gero babarruna, gehiena babarruna urte guztin. Eta gero haragi hura tomatekin. Hori izaten zan gure urte guztikoa. Gero jaie etortzen zanen, hasi zien gero, akordatzen naiz, garbantzukin hasi zien. Eta gero elegante-elegantea, paella; baiño ya paella ya elegantea zan.

- Lujua hori ezta?

- Bai. Hoi ya zea zan, elegantea zan. Eta gero, nola esango dizuet ba?

Urten behin jaten gendun oillaskoa, gure amak ganbaran eositako, eostos hazitako oillaskok e? Haik saltiotan. Ta eguarritan'e bai. Harek kapoiak hazitzen zitun, jan artoa hola sartuz.

8. Odolki, txorizo eta taloak, etxean eginak

- **Erref:** ORD-006/011
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:16:22

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Harategitik erosten zuen amak txerri odola eta etxean egiten zituen odolkiak eta baita taloak ere. Barazki gutxi jaten zen garai hartan. Eguberrietan jatordu berezia egiten zuten. Erregeak izaten ziren eta orduko oparien berri ematen du.</p>

9. Lixiba eta ekonomikako plantxa

- **Erref:** ORD-006/012
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:16:22. **Bukatu:** 00:20:29

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropak eskuz garbitzen zituzten arraskan; arropa zuria lixibatan garbitzen zuten. Garbigailua bazegoen baina beraiek etxean egiten zuten. Plantxa ekonomikan egiten zuten. Negurako egurra nola lortzen zuten eta etxean sua nola egiten zuten azaltzen du.

10. Goizetik iluntzera sua piztuta

- **Erref:** ORD-006/013
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:22:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Sukalde ondoan ur depositua izaten zuten. Goizean piztutako sua egun osoan izaten zuten piztuta.

Transkripzioa

- Eta ordun zekuen, ordun zekuen esto sukaldeai aldamenen, aldamenen hola, zea bat, ude depositu txiki bat eukitzen zuen. Ta han betetzen gendun udez, eta behar zanen babarrunantzako eo, depositu hartati hartu ta botatzen zan...
- Beroa, erdi beroa eongo zan [...] behintzat.
- Irakitten'e bai!
- Beida.
- Ta oso su ona. Goizen kalkatu ondo, ondo kalkatu, eta beti eman. Eta

gaiña zerrautza nola ekartzen zuen, eoten zan ganbaran ba zerrautze ihar-ihar-iharra. Eta eguardi arte guztin ez zeon ikuittu're beharrik. Gaueako ya amak ez. Gaueako ya bestela itten zun. Zeatik zezkuen, goiko txapa horrentzako, zuloa einda. Baiño gero gaueako burni batzuk jartzen zittun, sue itteko ikatzakin, ta txirbillekin, ta gauen afaria itteko, o merienda, o nahi zenduna. Zeatik ordun ordun ez zeon entxufauta.

- Bestelakoik ez?

- Ez, ez zeon besteik ezer.

- Sistemea.

- "Sí", baiño ona e? Bero bat botatzen zun harek, txeo, sukalde guk haundie genduken ta.

- Sukalde bero-beroa.

- Bero-bero-beroa. Ta labea're bai. Labea ordun oillaskoik ez zeon labean sartuta. Erreko zien han.

- Jeneroa falta.

- Bai, halaxe da.

11. Etxea urtean bitan hondartzen zuten

• **Erref:** ORD-006/014

• **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:24:50

Gaia(k):

• Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Etxea urtean bi aldiz hondartzen zuten ur eta lixibaz eta gaintetik alanbrea pasa eta argizaria ematen zioten. Kuadroko argizaria nolakoa izaten zen azaltzen du.

12. Perkalezko soinekoak eta mahoizko prakak

• **Erref:** ORD-006/015

• **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:28:48

Gaia(k):

• Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

• Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Umetan amak egindako perkalezko soinekoak eta gona plisatuak janzen zituen. Gizonezkoak mahoizko galtzak eta bonbatxoak janzen zituzten. Maritxuk arropak egiteko oihalak Bergaratik erosten zituzten. Ezkontzetarako kamisoiak ere egiten zituen. Oihal izenak aipatzen ditu. Josteko liburu mustrarioa bazuen Maritxuk.

13. Bi jaunartze izaten ziren

• **Erref:** ORD-006/016

• **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:28:48. **Bukatu:** 00:29:24

Gaia(k):

• Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

Bi jaunartze egin zituen zazpigarren; eta hamabi urterekin. Txuriz jantzita joan zen utzitako soineko batekin eta ospakizuna etxean egin zuten.

14. 23 urterekin ezkondu zen Ordizian

- **Erref:** ORD-006/017
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:29:24. **Bukatu:** 00:30:18

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

23 urterekin ezkondu zen Idiazabalgo senarrarekin Ordizian. Ordizian egin zuten banketea eta Iruera joan ziren ezkonbidaian.

15. Gerra Zibileko bizipenak

- **Erref:** ORD-006/018
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:30:18. **Bukatu:** 00:31:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra Zibila hasi zenean, 11 urte zituen eta orduko kontuak kontatzen ditu.

16. Umetako jolasak

- **Erref:** ORD-006/021
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:33:15. **Bukatu:** 00:35:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak aipatzen ditu: kanikak, diaboloa, etab. Udan, kalera atera eta emakumeak berrikerian eserita egoten ziren bitartean haurrak jolasean aritzen ziren. Jolasetako kantuak erdarazkoak ziren.

17. Liburu bakarretik ikasten zuten

- **Erref:** ORD-006/022
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:35:25. **Bukatu:** 00:36:27

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Orduan jolas gehiago egiten zuten ikasi baino. Maritxuk enziklopedia bakarra izan zuen eta handik ikasten zituen gai guztiak.

18. Pertsonaia mitologikoen istorioak

- **Erref:** ORD-006/023
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:36:27. **Bukatu:** 00:37:17

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Aitak Murumendiko Mariren eta beste pertsonaia mitologikoen istorioak kontatzen zizkien eta mendira joateko beldurrez egoten ziren.

19. Aitari entzundako txistea

- **Erref:** ORD-006/024
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:40:37

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gurasoei tenpora kontuak entzuten zizkien; baserritarrak ziren biak. Aita bertsozalea zen eta berari entzundako txiste bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta gero, bueno, hoi baserrin gehio, baiño egualdia asmatzeko moduk, eta tenporaik eta, hoik hoiri beirutzen al zien zuen aitta-amak eta, o zuek?

- Bai, guk, guk ez, baiña nik nere aitta-amai entzunta bai, bai. Zeatik bik basarritarrak zien.

- Hoi ba.

- Ama ta aitte. Baserritarrak zien, ta haik bai. Haik esaten zuen. Gaiña guri esaten ziguen: "noa jun zeate ba atsalden?" ta "ba, Beasaiña" "eta ikusi al dezue nolako artok daren biden? Haundigok o txikigok edo zer daon?".

Zeatio ordun, Beasaindik Villafranca, oain etxek dare, baiña ordun dana sorok zien. Eta "guk zeaittik ikusi ber ditteu ba horik?", ta "hortik bizi behar da ba!". Bizi, baiño guk, ematen ziguen plateren ta...

- Hoixe.

- Ez giñan akordatzen.

- Eta geo, ipuiek, eta bertsok, eta holako gauzak?

- Asko.

- Bai?

- Asko.

- Amak? O aittek?

- Aittak, aittak. Aitte, aitte, aitte. Aitte.

- Zalea zan?

- Bai, zalea zan.

- Burun ez dauzkezu?

- Bat esango dizuet o bi. Esto, hiru baserritar jarri emen zien, ba jun behar zuela belarra ebakitzea Naparroa. Eta, bueltakon zetoztela, lana in ta bueltakon zetoztela, ikusi emen zuen gizon hotz bat biden hilda. "Ene".

Harrittuta. "Guazen, behintzat, parte ematea". Etorri dia parte ematea. Ta hala, gizon hori eaman due. Ta hiruak gelditu dia, eta "oain guk, ze esan behar deu oain?", "aaa! Bakizu ze ingo deun? Erderaz ikasiko diu!", "nun ikasiko diu?", "hara! Hortxe zeok oaintxe, meza bukau da, ta hor zerek portikon, ta hurruntza jungo gaittuk". Ta jun emen zien haruntza, ta ai emen zien hizketan kuadrilla bat, eta jarri emen zien hiruek beida, ta "aizak, nik ikasi det e?" "Ze ikasi dek ba?" [...] "nosotros ikasi diagu, nosotros! Zuek'e ikasi zeozer", "bai, jungo gaittuk ba"... "Nik'e ikasi diat! Por el dinero!" ta esan emen zion, "ta hik, hik'e jun hai ba ikastea!", ta "tiene usted razón". Bazekien oain erderaz ta, "jungo gaittuk oain majo!". Jun dia, jetsi dia herria. Ta klaro, juezak nola billatu zittuen, ba eaman due deklarazio ittea, eta juezak esaten dio "¿quién ha matado a este hombre?", "hik esan zak, hik estraiñeko ikasi dek eta", "¡Nosotros!", "¿Por qué?", "hik esan zak oain, hik oain ikasi dek", "por el dinero", "¡a la cárcel los tres!", "tiene usted razón"... Hori behintzat bakit.

- Bazekin asko haik.
- Bai, gure aitta gañea oso txistosoa zan ta.

20. Erromeriara bi orduan oinez

- **Erref:** ORD-006/029
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:42:15. **Bukatu:** 00:44:09

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriara Larraitzera joaten ziren oinez bi orduko bidean. Dantza egiten zuten. Ordiziako eliza ondoan San Pedro ermita txikian festa handia egiten zen eta baita San Bartolomeetan eta San Juanetan ere.

21. Ordiziako festak

- **Erref:** ORD-006/031
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:45:09. **Bukatu:** 00:47:50

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Ordiziako festetan kalejira egiten zen 3 musika-bandarekin, Burgoskoa eta Donostiakoaere joaten ziren eta. Tren berezia jartzen zuten gauean kanpotarrentzat. Erroskilak saltzen ziren kalean. Soinujoleak izaten ziren eta baserritar jendea dantzara joaten zen.

22. Etxean euskaraz eta kalean gaztelaniaz

- **Erref:** ORD-006/032
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:48:28

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Etxean erdaraz hitz egitea debekatua zuten eta zuka hitz egiten zuten. Klean lagun guztiek erdaraz hitz egiten zuten.

23. Etxean egiten zituzten ukenduak

- **Erref:** ORD-006/034
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:50:48. **Bukatu:** 00:52:14

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Etxean erabiltzen zituzten ukenduak aipatzen ditu.

24. Estraperloko kontuak

- **Erref:** ORD-006/035
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:52:14. **Bukatu:** 00:56:38

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gerra ondorenean, estraperloa zegoen, batez ere ogiarena. Errazionamenduko ogia eta batata ematen zizkieten. Anekdotak bat kontatzen du. Guardia Zibilen konfiskatzeen beldurrez, babarrunak txaketan ezkutatuta ekartzen zituen etxera.

25. Ordiziako prozesioak eta kalbarioak

- **Erref:** ORD-006/036
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:58:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Aste Santuko Ordiziako prozesioetan parte hartzen zuen, eta kalbarioak egitera San Juanera joaten ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

26. Mezak latinez

- **Erref:** ORD-006/037
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 00:59:58

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Mezak latinez izaten ziren eta Maritxuk eta beste askok ez zuten tutik ulertzen.

27. Beasaingo lantegietarako arropa josten

- **Erref:** ORD-006/038
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:59:58. **Bukatu:** 01:02:54

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Josten amak erakutsi zion eta gero bere kasa moldatu zen. Anekdotak bat. Beasaingo lantegietarako buzoak egiten zituen; makinak erosi eta etxean aritzen zen. Bera zen jostun bakarretakoa Ordizian. Beste jostun batzuk aipatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com